


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

-KOR ATZIZKIAREN AURREAN BAIKOR:

-KOR ATZIZKIAREN AZTERKETA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Gonzalvo Senarriaga, Leire

GRADUA: Euskal Ikasketetako Gradua

SAILA: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

TUTOREA: Elordieta Alzibar, Arantzazu

2017-2018 ikasturtea: Ekaineko deialdia

LABURPENA

Lan honetan, *-kor* atzizkiaren azterketa egingo dugu. Oinarri duen aditza gertatzeko joera adierazten duen atzizki honen ezaugarri orokorrak emango ditut hasteko, baina batez ere, oinarri hartzen dituen hitzen ezaugarri morfosintaktikoak aztertzea izango da gai nagusia lan osoan zehar.

Atzizkia lehenago aztertu duten autoreek esandakoa azaldu eta Oyharçabalen (2003) lana oinarri, atzizki hau aditzoinekin lotzen dela eta aditzoien artean emankorrenak argumentu bakarrekoak direla azalduko dut. Salbuespenak salbuespen, *-kor* atzizkiak hartzen dituen argumentu bakarreko aditzak ezakusatiboak, inkoatibo/kausatibo alternantziadunak edo alternantziagabeak, eta ezergatiboak izan daitezke, oinarriko aditzaren subjektuak egile rola ez duen heinean. Inkoatibo/kausatibo alternantzia dutenen kasuan, balio inkoatiboa hartuta sortuko da izenondoa, balio kausatiboa baztertuz.

Horrez gain, argumentu biko aditzak ere izan daitezke atzizkiaren oinarri, zehazki, argumentu ergatibodun aditz iragankorrak eta argumentu datibodun aditz psikologikoak; hala ere, eratorpena gauza dadin aditz hauen barneko argumentua lexikoian asetu behar da, argumentu ergatiboa zein datiboa izenondo eratorriaren subjektu izango direlarik.

Argumentu biko aditza oinarrian duten *-kor* atzizkiaren bidez eratorritako izenondo hauek instrumentu edo esperimantatzaile rola duen subjektua izateaz gain, Oyharçabalek (2003) esandakoaren kontra, zenbait kasutan subjektu egilea, biziduna eta gizakia onartuko dutela erakutsiko dut. Hala ere, kasu gehienetan subjektua bizigabea, instrumentua beraz, edo esperimantatzailea da, egilea onartzen dutenak izenondo kopuru txiki bat izanik.

Egiletasuna adierazten duten aditz horietan, zenbait kasutan behintzat, *-kor* atzizkiari berez ez dagozkion balioak hartzen ari dela ikusiko dugu, eta bide horretatik, *-garri* eta *-le/-tzaile* atzizkien eremuetara zabaltzen ari dela; gauzak horrela, *-kor* bidez eratorritako izenondo batzuek esanahia partekatuko dute *-garri* edo *-le/-tzaile*-rekin eratorritako pareko izenondoekin.

Horrez gain, salbuespen izan daitezkeen eratorpen batzuk ere emango ditut. Alde batetik, oinarriko aditzaren DS lokatiboa subjektutzat hartzen duten izenondo eratorriak ikusiko ditugu. Alabaina, izenondo hauen kopurua murrizta da eta salbuespen lexikaltzat har daitezke.

Bestetik, inkoatibo/kausatibo alternantzia duten aditz batzuek eratorpena balio biek in gauza dezaketela ikusiko dugu, bakoitzarentzat esanahi ezberdinak lortuz. Balio kausatibodun izenondoa eta inkoatibodun izenondoa ezberdintzeko homonimo gisa tratatuko ditugu.

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	5
1.1. <i>-kor</i> atzizkiaren ezaugarri nagusiak.....	6
2. <i>-kor</i> -en inguruan aurretik esandakoak.....	6
2.1. Azterketak.....	7
2.2. Oyharçabal (2003).....	10
2.2.1. Argumentu bakarreko aditzak.....	12
2.2.2. Argumentu biko aditzak.....	16
2.2.3. Salbuespentzat jo daitezkeen eratorpenak.....	18
3. Corpusetan arakatuz.....	22
3.1. Oyharçabalen (2003) aditz-sailak osatzen.....	22
3.2. Oyharçabalen (2003) orokorpenaren kontraetsenplu diruditenak.....	28
3.3. Ondorioak.....	34
4. Ondorio orokorrak.....	34
5. Bibliografia.....	37

1. Sarrera

Lan honetan, aztergai izango den *-kor* atzizkia, egunerokoan erabiltzetik dakigunaz edo intuitzen dugunaren gainetik, pixka bat sakonago ezagutzea eta irakurleari ezagutaraztea izan da helburu nagusia; hala nola, atzizkiak oinarrian hartzen dituen hitzen kategoria aztertu, eta batez ere, oinarritzat izan ditzakeen aditzen ezaugarri morfosintaktikoak nabarmendu. Modu horretan, hiztunak atzizki hau darabilenean oharkabean darabiltzan arauak zein diren ezagutuko ditugu. Horretarako, horri buruz esan eta ikertu dena bildu eta erakutsi nahi izan dut, eta horrez gain, atzizkiaren inguruan ezer berririk topatu eta hona ekar nezakeen aztertu.

-kor atzizkia duten lekukotasunen bilketa lana egiteko honako corpus hauek baliatu ditut: *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)* (1987-2005), *UZEI* (1989): *Atzekoz aurrera: euskarazko hitz-bukaeren hiztegi eguneratua, Ereduzko Prosa Gaur (EPG)* (2001-2009), *Egungo Testuen Corpora (ETC)* (2001-2015) eta *Euskal Klasikoen Corpora (EKC)* (2013). Bestalde, erabilitako lanak hurrengoak dira: Azkue (1923-25), Echaide (1931), Villasante (1974), L.M. Mujika (1978), P. Mujika (1982) eta Oyharçabal (2003). Nolanahi ere, azpimarratu nahi dut hau aurreko guztiaren osagarria izateko asmoarekin eginda dagoela, eta inolaz ere autore batek proposatutakoa baztertzeko asmoarekin. *-kor* atzizkidun hitzak arakatzearan egindako lanean ikusitako datu esanguratsu guztiak aipatzen eta azaltzen ditut hemen, betiere adibideekin horniturik.

Atzizkiaren oinarri diren aditzei buruz aritzean, gramatikan hainbatetan erabiltzen diren izendapenak erabiliko ditut lanean zehar, Oyharçabalek berak erabiltzen dituen horiekin jarraitzearen, alegia:

- a. Argumentu bakarreko aditzak = *NOR aditz ezakusatiboak* eta *NORK aditz ezergatiboak*.
- b. Argumentu biko aditzak = *NOR-NORK aditz iragankorrak* eta *NOR-NORI aditz psikologikoak*.

Lanaren egiturari dagokionez, honela antolatu dut: jarraian, 1.1. atalean, *-kor* atzizkiaren ezaugarri orokorrenak aipatu ditut, atzizkia aurkezteko asmoarekin; 2. atalak bi azpiatal ditu: 2.1. azpiatalean, honen aurretik beste zenbait autorek ikergai dudana atzizkiaren inguruan esandakoa aurkeztu eta azaldu dut eta 2.2. azpiatalean, lan honen oinarri izan den Oyharçabalen (2003) lanaren azalpena dator; era berean, 2.2. atal hori zenbait azpiataletan banatu dut, oinarriko aditzaren argumentuen kopuruaren

arabera: 2.2.1. azpiatalean argumentu bakarreko aditzak azaldu ditut, 2.2.2.-an argumentu biko aditzak eta 2.2.3. atalean, salbuespen izan daitezkeen eratorpenak eman ditut; jarraian, 3. atalean, Oyharçabalek egindako hurbilketari edo azterketari zenbait datu gehitu dizkiot; horren ostean, 3.1. azpiatalean, Oyharçabalen orokorpenarekin bat ez datozen adibide batzuk ekarri ditut. Halere, adibide hauen kopurua txikia izanik, zalantzagarrria da salbuespentzat hartu ala bestelako azalpena behar duten datuak diren. Izan ere, aztertu ditudan datu gehienek bat egiten baitute haren proposamenarekin. 3.2. azpiatalean, ekarritako datuen ondorio labur batzuk ematen ditut; bukatzeko, 4. atalean, lan osoaren ondorio orokorrak ematen ditut, honetan ikusitako guztia laburtuz. Horrez gain, azkeneko orrialdeko 5. atalean, hau egiteko erabilitako eta aipatutako lanen eta artikuluen erreferentzia bibliografikoak biltzen dira.

1.1. *-kor* atzizkiaren ezaugarri nagusiak

Lanari hasiera emateko, hurrengo orrialdeetan aztertu eta jorratuko dudana *-kor* atzizkia aurkeztuko dut, bere izaera osatzen duten ezaugarriak aipatuz:

- a) Beregaintasun lexikalik ez duen morfema da; atzizki emankorra da, baita gaur egun ere.
- b) *-kor* atzizkiak izenondoak sortzen ditu.
- c) Eratorritako izenondoak oinarriko aditzarekiko “joera” adierazten du.
- d) Orokorrean, *-kor*-ek oinarri gisa argumentu bakarreko aditzoinak hartzen ditu.
- e) Izenondo eratorriak oinarriko aditzaren subjektua hartzen du subjektutzat.
- f) Eratorbiderik arruntena NOR aditz ezakusatiboekin gertatzen da.

Behin *-kor*-en ezaugarriak esanguratsuenak erakutsita, has gaitzen gure azterketarekin.

2. *-kor*-en inguruan aurretik esandakoak

Lan hau ez da aztertzeko aukeratu dudana atzizki honi buruz hitz egingo duen lehenengoa; izan ere, XX. mendetik hona egon dira aztergai dugun atzizkia modu orokorrean, zeharka edo sakonago aztertu dutenak. Hona ekarriko ditut *-kor* atzizkia gai izan duten lanak, kronologikoki aipatuta eta azalduta, alegia: Azkue (1923-25), Echaide (1931), Lafitte (1944), Villasante (1974), Mujika (1978), Oyharçabalek (2003) Euskaltzaindiaren Iker- 14-1 bilduman ateratako “*kor* atzizkiaz” artikulua, guztietan

atzizkia sakonen aztertu duen lana, eta horrexegatik lan honen oinarria izango dena, eta *Sareko Euskal Gramatika*-ren (SEG) azalpena.

2.1. Azterketak

Hasteko, *-kor* atzizkia aipatzen duen lehenetariko gramatikaria Resurrección M^a de Azkue (Lekeitio, 1864- Bilbo, 1951) euskalaria izan zen, bere *Morfología Vasca* (1923-25, vol. I: 147-150) lanean. *-Or* (*-kor*) lemaren pean, joera adierazi eta normalean aditzak oinarri gisa hartzen dituen atzizkitzat definitu zuen; hortaz, hartutako aditzarekiko (edo ekintzarekiko) joera adierazten duen atzizkitzat. Bere hitzetan, *-kor* da erabiliena, *-or*-en gainetik, hasierako herskari ahoskabea epentetikoa delarik. *-gor* aldaerari dagokionez, Azkueren ustez, *-g* kontsonantea ez da epentetikoa: “ez dago hitzik zeinetan *-or g* epentetikora lotua izan den” (1923-25: 148). Izan ere, bere corpusean erakusten duen *ahalgor*, *ahalge* + *-or* elkarketaren emaitza dela dio, *g* hori epentetikoa ez delarik. Gauza bera dio *ahalkor* aldaeraren inguruan, kasu honetan *k* ez baita epentetikoa, *ahalke* + *-or*-en emaitza baizik.

Ildo beretik, Echaidek, *Tratado de sufixación, prefijación y composición en el idioma eúskaro* (1931: 112-113) lanean, *-koi* eta *-kin* atzizkiekin batera, *-kor*-i ataltxo bat eskaini zion; hala ere, ematen duen informazioa Azkuek zioenetik ez da aldentzen; alegia, Azkuek esandakoa oinarri hartu zuela ematen du. Aipagarria iruditu zait ordea, *-or*, eta honen aldaera *-kor*, jatorri erdaldunekoak direla aipatzen duela eta *productor*, *vividor* edo *organizador* bezalakoetan agertzen den atzizkiaren pareko dela. Ez du hala ere, azterketa edo azalpen sakonagorik egiten, aipatu besterik ez.

Lafittek (1944) ere, aztergai dugun atzizkiaren inguruan idatzi egin zuen; halere, Oyharçabalen (2003) azterbidea aurkeztean ikusiko ditugu Lafittek berak gaiaren inguruan egindako ekarpenak, izan ere, Oyharçabal bere lana proposatzeko, Lafitteren azterketatik abiatu zen.

Luis Villasantek (1974) *-kor* atzizkiak oinarrian aditzak lehenesten dituela esan zuen eta aditzera eman zuen kontrakoa iruditu dezakeen arren, zenbait hitz ez direla *-kor*-en eratorpenaren emaitza, *GOGOR*-ena baizik¹. Are gehiago, eratorritako hitz hauek ikertzen ari garen atzizkia daramaten hitzen kontrako esanahia dutela esaten du, edo

¹ Villasantek dioen hau Azkuek berak ere esan zuen, Villasantek emandako adibideez gain beste bat erakutsiz: *elkor*, honako adierekin: 1. “tierra estéril”, 2. “fruta que no madura” eta 3. “mezquino, ávaro” (1923-25: 150). Badirudi beraz, 1974ko lanaren autoreak Azkuerengandik jaso duela ideia hau.

zenbait kasutan, esanahi biak izan ditzaketela. Azkeneko kasu hauen adibide gisa honako hauek ematen ditu:

(1) *Egoskor* – “difícil de cocer” vs. “fácil de cocer”.

(2) *Esnekor* – “de mucha leche” vs. “de poca leche”.

(3) *Sineskor* – “crédulo” vs. “incrédulo”.²

Horrez gain, *-kor*-ek ez duela egiletasunik adierazten esaten du; hala, *hilkor*, adibidez, “heriotzarako joera duena” izango da, baina “hiltzen duena” adierazteko *hilgarri* edo *hiltzaile* erabili beharko dira. Ikus daiteke beraz, Villasantek jada egiletasuna adierazteko ezinezko ikusten zuela *-kor* atzizkia, Oyharçabalek (2003) beranduago azalduko duenez, eta horretarako beste atzizki bat behar dugula, kasu honetan, *-garri* edo *-le/-tzaile* atzizkiak, alegia.

Bestalde, proposatzen du badirudiela *orokor oro* (zenb) eta *-kor*-en elkarketaren emaitza dela, bere esanahia “propenso al todo, universal” (1974: 105) delarik. Kontuan hartuta *-kor* atzizkia aditzak hartzen dituela oinarri ikusi dugula, gutxienez bitxia suertatzen da Villasantek proposatzen duen hau, ez baitu gainera azalpen gehiagorik ematen.

Luis Maria Mujikak (1978) ere bere aldetik *-kor* atzizkia ikertu zuen eta bat egiten du aurreko autore biek “joera” adierazten duela esatean. Interesgarria iruditu zait hala ere, atzizkiaren jatorria azaltzera sartzen delako eta *-kor* eta *-garri* ez nahasteko oharra ematen duelako. Lehenengoak, animalia eta pertsonetikiko, zer edo zer egiteko joera adierazten duela eta bigarrenak agente-kausatiboei egiten diela erreferentzia zehazten du.

Jatorriari dagokionez, Echaidek (1931: 112-113) esandakoaz urrunago joan eta atzizki honen gaztelaniako parekoak *-izo*, *-ivo* eta *-ble* direla esan ostean, *-or/-kor*-ek jatorri erromanikoa izan dezakeela proposatzen du, herskari epentetikoa ez duena gazteleraz *color*, *fragor* edo *amor* bezalakoetan eta euskaraz *lotsor* edota *erreor*³ bezalakoetan topatu daitekeela erakutsiz. Horrez gain, euskaraz eta latinez aditzak

² Nolanahi ere, *Orotariko Euskal Hiztegiak (OEH)* “difícil de cocer” adierarentzat *egoskogor* forma ematen du; *esnekor*-en azpian “hembra de poca leche” soilik jartzen du; *sineskor*-i, berriz, “crédulo” edo “creyente” adierak ematen dizkio. Hortaz, bitxia da Villasantek beste adierak jartzea, kontuan hartuta gainera, *OEH*-k ematen dituen adierak Azkueren lanekoak (1923-25: 150) direla.

³ *OEH*-n sarrera dute bai *lotsor*-ek, bai *lotsakor*-ek; *erreor*-i dagokionez, *errekor* bakarrik agertzen da.

oinarri hartzen dituen arren, gazteleraz aditzak, izenak eta, ondoko (5) adibidean ikus daitekeenez, adjektiboak ere har ditzakeela baieztatzen du.

Bestalde, autorearen aburuz, *-or*-en bidez eratorritako izenondoan oinarriko aditzak izen bilakatzean, hiztunak *-ura* atzizkia erabiltzen du bai euskaraz bai gazteleraz, honako adibideetan ikus daitekeenez:

Euskaraz (1978: 177)⁴:

(4) <i>suminkor</i> AN, B, BN, G, L.	<i>sumindura</i> AN, BN, G, L.
<i>Minkor</i>	<i>mindura</i> AN, L. (Duv.)
<i>Luzakor</i>	<i>luzadura</i>
Gazteleraz:	
(5) <i>amargor</i>	<i>amargura</i>
<i>Dulzor</i>	<i>dulzura</i>
<i>Negror</i>	<i>negrura</i>

Hala ere, Mujikak arazoa ikusten du (4) eta (5) adibideetako *-ura* atzizkidun izenondo horien pareko *-or/-kor* atzizkia duten hitzak euskaraz izenondoak direlako eta gaztelaniaz izenak. Proposatzen du, zenbait hitzetan, *-or -tor/-toris*-en aldaera sinkopatua izan daitekeela, gaztelaniaz egiletasuna duen *-dor* (*amenazador, pescador* etab.) ematen duelarik. Euskaraz *-or/-kor*-ek semantikoki joera adierazten duenez, eta gaztelaniaz *pescador* motakoek ordea, agentetasuna dutenez, autorearentzat *verdor* bezalakoen *-or* hori, latineko *-or/-oris* dena, ez du *-tor/-toris* agentearekin zerikusirik. Beraz, gazteleraz bi jatorritako bi atzizki izango genituzke eta euskaraz, aldiz, gure atzizkia *-or/-oris*-etik datorrela proposatzen du, Mujikak atzizki horren adiera zein zen ematen ez duen arren.

Amaitzeko, euskaldunok egile-kausatibo kontzeptuak adierazteko *-le/-tzaile/-tale*-z baliatzen garela zehazten du, eta ez *-or/-kor*-ez, Villasantek (1974) bere lanean ohartzen zuen bezalaxe.

*Sareko Euskal Gramatikak (SEG)*⁵ ere ataltxo bat eskaintzen dio atzizki honi, eta honek ere, ‘izaera, joera’ adierazten duten izenondoak sortzen dituela esaten du, aditzoin kategoria duten oinarriak hartuz. Herskaridun alomorfoa, *-kor*, eta

⁴ Adibideak zuzenean autorearen lanetik atera ditut, baina ez ditut berak ematen dituen guztiak jarri.

⁵ *Sareko Euskal Gramatika* Oyharçabalen (2003) lanaren ondokoa da; hala ere, atzizkiari buruz dioena Oyharçabalek dioenetik ez denez asko aldentzen, eta Oyharçabalen azterbideari leku gehiago emango diodanez, *SEG*-ek azaltzen duena aurretik ematea erabaki dut.

herskaridungabea bereizten ditu, lehenengoaren erabilera nagusitzen dela dioelarik.

SEG-ek, atzizkia aditsoinekin elkartzen dela esateaz gain, horietako asko *da/du* motakoak direla zehazten du, edo beste era batera esanda, inkoatibo/kausatibo alternantzia dutenak. Kasu hauetan, atzizkiak balio inkoatiboa lehenesten du, hots, *izan* laguntzailea hartzen duen erabilera, eta aditzaren argumentu bakar hori izango da izenondoaren kanpo-argumentua; horrez gain, *Sareko Euskal Gramatikak* aipatzen du kausatibo edo *du* balioa –*garri* atzizkiak hartuko duela, adibideekin osatuz:

(6) *hil da/du*

(*da*) *hilkor* = ‘heriotzaren mendean dagoena’

(*du*) *hilgarri* = ‘hiltzen duena’

Aditz mota hauez gain, *du* motakoak ere har ditzakeela azaltzen da jarraian, baina soilik argumentu bakarrekoak direnean, *iraun* adibidez, eta berriro ere, argumentu hori izango da izenondoaren kanpo-argumentua, *Sareko Euskal Gramatika*-ren arabera. Argumentu biko zenbait aditz aipatzen dira jarraian, *barkatu*, *sentitu* edo *sinetsi*, baina hauen kanpo-argumentuak esperimentatzaile rola edukiko du eta horri egingo dio erreferentzia -*kor*-en bidez sortutako izenondoak.

Bukatzeko, *SEG*-en adierazten da eratorritako izenondo hauek geroago sortutako izenen edo aditzen oinarri izan daitezkeela, esate baterako: *aldakortasun*, *iraunkortasun* edota *sentikortu*.

2.2. Oyharçabal (2003)

Beñat Oyharçabal euskalariak (2003) lan oso bat eskaintzen dio aztergai dugun atzizkiari, Lafittek (1944) bere *Grammaire basque* lanean honen inguruan zioenetik abiatuz. Honako ezaugarriak seinalatzen ditu, Lafitteren lanetik hartuta:

- a) beregaintasun lexikalik gabeko morfema da, eta zehazkiago atzizkia;
- b) aditsoinei lotzen zaie;
- c) izenondoak sortzen ditu;
- d) izenondo eratorriak oinarriko aditzaren erran-nahiari darraion joera edo jaugina adierazten du. (Oyharçabal, 2003: 357).

Esan genezake beraz, lana hasteko *-kor* atzizkiaren oinarrizko ezaugarriak eskaintzen dituela, betiere, Lafittek esandakoan oinarrituz.

Jarraian, eratorpen honi buruz zenbait ezaugarri orokor ematen ditu, aurretik beste autore batzuek (Azkuek (1923-25), besteak beste) esandakoan oinarrituz:

- I. Forma zaharra *-or* da.
- II. *-k-* epentetikoa atzizkiaren parte bihurtuta, gehienetan *-kor* agertzen da.
- III. Zubereraz *-kor*-ek azentua dauka (*ixilt* vs *ixiltkór*⁶). Ordea, Azkueren (1923-25: 210) hitzak ekarrita, *auskor*, *aldakor* eta abar ditonoak dira.
- IV. *-kor*, zenbait euskalkitan hitza izan daitekeen *-k(h)oi*-ren aldean, atzizkia da beti salbuespenik gabe.
- V. *-kor*-en bidez eratorritako hitzak izenondoak dira, salbuespenen bat kanpoan utzita; *jankor* eta *edankor*-en kasua da hori, zenbait adibidetan izen erabilera dutenak: *ez da han ikhusten banitaterik, dosteta errhorik, yankor eta edankor sobraniazkorik [...] baizen.* (He *Phil* 396). Halere, erabilera hauek gutxitan gertatzen dira.
- VI. Sortutako izenondoei beste eratorpen atzizkiak gehi dakizkieke, besteak beste, *-tasun*, *-ki* edo “atzizki aditzegilea”: *sarkor-ki*, *sarkor-tasun*, *sarkor-Ø(-tu)*.

Hau guztia azalduta, atzizkiak hartzen duen oinarriaren azterketa linguistikoari ekiten dio, guri axola zaiguna, alegia.

Hasteko, Lafittek (1944) esandakoaren kontra doazen zenbait adibide aipatzen ditu; izan ere, badira oinarrian aditzoinik ez duten zenbait hitz eratorri. Hiru sailetan sailkatzen ditu hauek: *ilezkor*-en erakoak, *aberekor*-en erakoak eta *baikor*-en erakoak.

Ilezkor-en erakoak, dirudenez, Larramendik (1749) erdarazko *in-* eta *-able/-ible* ereduko aurrizki eta atzizkidun izenondo eratorriak euskaratzeko sortuak. Bigarren taldea, *aberekor*-en erakoek osatzen dute, oinarrian izena dutenak. Hauek bi azpitaldetan banatzen ditu Oyharçabalek: lehenengoa aurrerago azalduko dut, argumentu bakarreko aditzoin ezergatiboen inguruan hitz egitean, aditz lokuzioetan oinarritzen baitira (*iheskor*, *kaltekor*...); bigarren azpitaldeari dagokionez, ohiko eratorbidetik kanpo uzten du, oinarrian izena hartzen dutelako eta esanahiaren aldetik, *-kor*-dun hitz eratorrien ohiko esanahiaren zentzuarekin bat ez datozelako, honako

⁶ Larrasket-en hiztegitik (1939) ateratzen ditu honetarako adibideak.

esanahia baitute: *aberekor* ‘animal, bestial’, *denporakor* ‘temporal, temporel’, *lurkor* ‘terrenal, terrestre’ edo *urikor* ‘civil’, besteak beste. Azkeneko azpitaldeko hauen artean sartuko nituzke nik Azkuek (1923-25) bere lanean ematen dituen *elizakor* eta *umekor* izenondoak ere. Azkenik, *baikor*-en erakoak, oinarrian aditzak edota izenak ez diren beste ezer dutenak osatuko lukete. Gutxi dira talde honetan agertzen direnak, *baikor*, *ezkor*, *orokor*, *kontrakor* eta *betikor*, eta horietatik lehenengo hirurak dira gaur egun euskaraz erabiltzen direnak. Nik talde honetan, *Ereduzko Prosa Gaur-en* (EPG) topatutako *bikor*⁷ ere sartuko nuke, bide batez.

Halere, oinarrian aditzak dituzten *-kor*-dun izenondoak dira hemen interesa pizten digutenak, alde batetik, normalean eta kasu gehienetan *-kor* atzizkiak aditzoinak hartuko dituela topatuko dugulako; bestetik, atzizkia askoz sakonago ezagutzea ahalbidetuko digutelako.

Oyharçabalek (2003) oinarrian aditzak dituzten izenondo hauek bi talde nagusitan banatzen ditu: alde batetik, berez, argumentu bakarra dutenak eta bestetik, argumentu bikoak, hots, aditz iragangaitzak eta aditz iragankorrak. Egiten duen sailkapen hau azaldu eta azpitaldeak aurkeztuko ditut datozen paragrafoetan.

2.2.1. Argumentu bakarreko aditzak

Azkarate & Gràcia-ren (1995) eta Gràcia Solé, Cabré Castellví, Varela Ortega & Azkarate Villar-en (GCVA) (2000) lanetan oinarrituta, Oyharçabalen abiapuntua da *-kor* atzizkiak normalean soilik barneko argumentua duten aditzak oinarri hartzen dituelako irizpidea. Hala, zehazten du aditzaren barne-argumentu hori izenondo eratorriaren subjektu ere izango dela, hurrengo adibidean ikus daitekeenez:

(7) a. *Arbolaren hostoak erortzen dira.*

b. *Arbolaren hostoak erorkorrak dira.*

Erori aditza iragangaitza den heinean, (7a) adibidean *hostoak* aditzaren subjektu da argi eta garbi eta ondorioz, (7b)-n *erorkor* izenondoaren subjektu izango da.

Hauen artean, oinarriaren kategoria dela eta zalantzak sorraraz dezaketen, baina bere hitzetan “itxura kontua den”, zenbait adibide sartzen dira. Izan ere, badira izen edo izenondo batetik eratorriak izan direla diruditen zenbait hitz: *gizenkor*, *haserrekor*,

⁷ *Orotariko Euskal Hiztegia*-k “doble” adiera ematen dio eta gipuzkeraz erabiltzen da.

pozkor, ustelkor... Baina Oyharçabalek dioenez, “izenak eta izenondoak aditz eratorrien oinarri izan daitezke euskaraz, eratorratzizkia agerikoa izan gabe” (2003: 367) eta honako formula ematen du esandakoa trinkotzeko:

(8) “[[[*ustel* IO] – Ø A] –*kor* IO]”⁸

Ikus daitekenez beraz, oinarri horiek ere aditz iragangaitzak dira azken finean.

Gerta daiteke ere, duten subjektuaren arabera zenbait aditz iragangaitzen argumentuaren theta-rola aldatzea eta eratorpena baldintzatzea. Hurrengo adibideetan ikus dezakegu hau:

(9) a. *Haur hori* <agentea> *beti norabait joaten da*.

b. **Haur hori joankorra*⁹ *da*.

(10) a. *Denbora* <gaia> *aitzina doa*.

b. *Denbora eta dirua joankorrek dira*

(9a) adibidean, *joan* aditzak subjektu biziduna eta gizakia duen heinean, honek semantikoki agentetasuna izango du. (10a)-n ordea, *denbora* subjektuak gaia-rola du, egilea ez delako. Honek *joan* aditzetik *joankor* eratorri ahal izatea baldintzatzen du; izan ere, (10b)-n, gaia-rola duen subjektu bizigabearekin eratorpena posiblea da, baina ez (9b)-n, egiletasunak oztokatzen baitu.

Bestalde, *-kor* atzizkia onartzen duten aditz iragangaitzen artean bi mota bereizten ditu autoreak: NOR aditz ezakusatiboak eta alternantzia inkoatibo/kausatiboak (edo bere hitzetan “alternantzia iragankorra”) duten NOR aditz ezakusatiboak. Lehenengoa, (7) adibidean ikusitakoa izango litzateke, argumentu bakarra duen *erori* aditzetik *erorkor* adjektibo eratorria, beste batzuen artean. *UZEI*ko corpusa¹⁰ arakatu, beste zenbait topatu ditut: *egon-egonkor, etorri-etorkor, itzuri-itzurkor*, adibidez.

Bere esanetan, bigarren motakoak atzizkiaren oinarri direnean, izenondoa aditzaren forma iragangaitzarekin soilik lotu daiteke, eta forma iragankorrenekin

⁸ IO = Izenondo

⁹ *Joankor* izenondoa, Oyharçabalek emateaz gain, Luis Maria Mujikaren laneko (1978) corpusean soilik topatu dut; Azkuek (1923-25), bere aldetik, *fankor* aldaera sartzen du. Bestalde, *Ereduzko Prosa Gaur*-en birritan agertzen da, hala ere, *Egungo Testuen Corpus*-ean hamar agerraldi ditu, hortaz, baliteke berrikuntza izatea.

¹⁰ UZEI (1989): *Atzekoz aurrera: euskarazko hitz-bukaeren hiztegi eguneratua*, www.uzei.eus/online/atzekoz

lotzekotan, eratorpena gaizki egongo da. Hori baieztatzeko hurrengo adibideak ematen ditu:

(11) a. *Noizpait oro hilen gara* → *Oro hilkorrak gara.*

b. *Bizi penera kondenatuak dira* → *#Kondenatu hilkorrak dira.*

(12) a. *Haren hitzak barna sartzen ziren gure baitan* → *Hitz sarkorrek ziren.*

b. *Tresna hauek erabiltzaileek aise sartzen dituzte behar den tokian* → **Tresna sarkorrek dira.*

(11a) eta (12a)-n, irakurketa inkoatiboa egiten den heinean, eratorpena posiblea da; (11b) eta (12b)-n ordea ez, irakurketa kausatiboa erabiltzen baita. Kasu hauetan ere, aditzaren subjektua izenondoaren subjektua ere izango dela gogoratzen du.

Argumentu bakarreko aditzekin bukatzeko, NORK aditz ezergatiboak, agente argumentua ez dutenean, *-kor*-ekin eratorbidea sortzeko bidea libre dutela azaltzen du. Aditz hauek ere iragangaitzak dira eta badirudi NOR aditzekin topatutako ezaugarri berak topatuko ditugula hauen eta atzizkiaren artean eratorbidea sortzerakoan. Hortaz, NORK aditzen subjektua izenondo eratorriaren subjektua izango da eta honek ez du inoiz agente eginkizuna izango. Atzizkiak onartzen dituen azkeneko kasu honen aditzak erakusteko berak proposatzen dituen adibideetako batzuk aipatuko ditut:

(13) *X-k distiratzten du* → *X distirakorra da*

X-k irauten du → *X iraunkorra da*

X-k beti luzatzen du → *X luzakorra da*

(14) *Denbora iheskorra da* vs **Gaixtagin horiek iheskorrak dira*

(14)-an, *denbora*-k gaia rola duen lehenengo adibide horretan, eratorpena posiblea da, ez ordea bigarrenean, aditzak agentea den *gaixtagin horiek* baitu subjektutzat. Hau (11) eta (12) adibideetan ikusitako kasu bera izango litzateke, baina argumentu-bakarreko NORK aditzetan.

Multzo honetako partaide bailiran azter ditzakegu aditz lokuzioetako izenetan oinarritzen diren *-kor*-dun izenondo eratorriak, hauek ere NORK argumentu bakarreko aditzetan oinarritzen baitira, lokuzioak izan arren: *irrikor*, *iheskor*, *kaltekor*... Honako hauek berezitasun bat dute, halere. Oyharçabalek (2003: 368) nabarmentzen duenez, atzizkia ez da aditz-lokuzio osoarekin lotzen - **ihes eginkor-*, balio lexikala duen

osagaiarekin baizik, *ihes* izenarekin, alegia. Izan ere, autoreak aipatuaz gain, zenbait adibide gehiago sar daitezke, hala nola: Plácido Mujikak (1982) bere corpusean emandako *barrekor* eta Azkuek berean emandako *lankor* eta *txistukor*.

Hortaz, esan daiteke neurri batean ez dela egia *-kor*-ek soilik aditzak hartzen dituela; izan ere, *-kor* bidez eratorritako adjektibo hauek aditz batean oinarritu arren, egiazki oinarri hartzen duena izena da, aditz-lokuzioaren aditza den osagaia ezabatuz. Honek aditzera ematen digu, kasu hauetan behintzat, ez dela bakarrik “itxura kontua” izenekin elkartzen dela atzizkia, Oyharçabalek esan bezala. Hau ez da aditz lokuzio guztiekin ematen, halere, **lokor* edo **eztulkor* ez baitira posible, esate baterako. Honek, gutxienez, hau zergatik gertatzen den galdera sorrarazten digu: zergatik da posible *barrekor*, baina ez *eztulkor*? Kasu hauetan ez baitugu agentetasunik, aurreko eratorbide ezinezkoekin gertatzen zen bezalaxe.

Horrez gain, Oyharçabalek nabarmentzen du oinarriko aditzan egilea duten aditz ezergatiboek ez dutela *-kor* hartzen, honakoak ez baitira posible¹¹:

(15) **askalkor*

**burlakor*

**jazarkor*

Proposatzen du beraz, “atzizkiak baldintzatzen duela oinarriko aditzetik hartzen duen argumentuaren theta rola, agente-argumentuak baztertuz” (2003: 371).

Oyharçabalek (2003: 373) laburtu bezala beraz, *-kor*-en bidez eratorritako izenondoaren subjektuek, egiletasuna kanpoan utzirik, honako theta rola izan ditzakete: mugimendu aditzen eta egoera-aldaketa baten gaia, eta ekoizpen aditzen instrumentua. Horrez gain, autoreak lehen hurbilketa bat egiten du:

(16) “*kor* atzizkiak argumentu bakarreko aditzak aukeratzen ditu; argumentu hura da izenondoaren subjektua, baldin eta agente ez bada.”

¹¹ Oyharçabalek (2003: 370) adibide gehiago ematen ditu baina nik hemen gutxi hauek aipatuko ditut.

2.2.2. Argumentu biko aditzak

Oyharçabalek berak aitortzen duenez, argumentu bakarreko aditzek iturri aberatsena eta emankorrena eskaintzen badute ere badira *-kor*-ek onartzen dituen argumentu biko zenbait aditz. Adibide hauek ematen ditu berak:

(17) *Arbola horrek anitz fruitu ekartzen ditu* → *Arbola ekarkorra da*.

(18) *Gauzak aise ahazten zaizkit* → *Ahazkorra naiz*.

Aditz hauek bi motatan sailkatzen ditu: (17) adibidekoa NOR-NORK aditz iragankorra eta (18) adibidekoa NOR-NORI erako aditz psikologikoa. Eratorbide hauek (16)-an eman dugun lehen orokorpenaren bidez azal daitezkeela erakusten saiatuko da. Hasteko, NOR-NORK aditzak aztertzen ditu, adibide hauek eskainiz:

(19) *X-k anitz adierazten du* → *X adierazkorra da*

X arbolak anitz ekartzen du → *X ekarkorra da*

X-k anitz ematen du → *X emankorra da*

X-k anitz jasaten du (oldartu edo amore eman gabe) → *X jasankorra da*

X-k anitz pairatzen du (amore eman gabe) → *X pairakorra da*

X-k aise sentitzen du → *X sentikorra da*

X-k aise sinesten du → *X sineskorra da*

Eratorbide hauetan, oinarriko aditz iragankorraren subjektu ergatiboa izenondoaren subjektua ere bada, argumentu egituran beste argumentu bat baduten arren, barneko argumentua alegia. Honek (16)-ko orkorpenaren kontra doala dirudien arren, hots, *-kor*-ek argumentu-bakarreko aditzak hartzen dituela, Oyharçabalek dio itxurazko arazoa dela, adibide horietan argumentu bakarra dugulako. Horretarako, Rizzik (1986) proposatzen duen ideia bat jarraitzen du; hots, (19)-ko adibideetan, objektu kanonikoaren edo barneko argumentuaren theta rola lexikoian asetua izango dela. Hortaz, esatera dator *-kor*-ek aditz iragankor horiekin eratorbidea sortzea ahalbidetzen duela euren barneko argumentua lexikoian asetu dutelako, eta beraz, argumentu bakarra izango balute bezala jokutzen dute. Gainera, horren aldeko argudiotzat erakusten du sortutako izenondo horiek ezin direla agertu objektua ondoan badute, ondoko adibideetan ikus daitekeenez:

- (20) a. *Arbola fruitu ekarlea*
 b. *Arbola ekarkorra*
 c. **Arbola fruitu ekarkorra*

(20)-an ikusi bezala, sortutako izenondoa egileari erreferentzia egiten dion *-le/-tzaile* atzizkiaren bidez eratorritakoa bada, *ekarle*, objektua izen-sintagman ager daiteke, ez ordea *ekarkor*-ekin, arbolak fruituak ekartzen dituela badakigu ere, aditzaren bi argumentuak agertuko liratekeelako eta *-kor* argumentu bakarreko aditzei atxikitzen zaie.

NOR-NORK saileko aditzekin bukatzeko, esan dezagun beraz, (19) –ko aditzen subjektuaren theta-rola instrumentua edo esperimantatzailea izan daitekeela, baina ez agentea¹².

Hurrengo, NOR-NORI aditz psikologikoen kasua aztertzeraz pasatuko gara, horretarako Oyharçabalek ematen dituen adibide batzuk erabiliz:

- (21) a. *X-ri gauzak aise ahazten zaizkio* → *X ahazkorra da*
X-ri gauzak aise gaitzitzen zaizkio → *X gaitzikorra da*
X-ri jendea aise urrikaltzen zaio → *X urrikalkorra da*
 b. *X-ri datak ahazten zaizkio* → **X data- ahazkorra da*

Psiko-aditzek ere bi argumentudun egitura duten heinean, Oyharçabalek (2003: 376) dio aditz hauen azterketan onartu egiten dela datiboa, esperimantatzaile rola duena, absolutiboa baino gorago kokatzen dela, honek gaia-rola duelarik (Belletti & Rizzi 1988, Artiagoitia 1995).

Hemen ere, NOR-NORK aditzekin bezala, proposatzen du barneko argumentua asetuko litzatekeela, asetu gabe geratutako argumentua esperimantatzailearen rola izango duelarik. Hori horrela izanda, hauek ere argumentu bakarra balute bezala jokatu lukete, behin barneko argumentua lexikoian asetuta, eratorbidea sortzean objektu kanonikoa ondoan dutela ezin agertu daitezkeela, (21b) adibidean argi ikus daitezkeenez.

¹² Hala ere, aipagarria iruditu zait *jasankor* eta *sentikor* izenondoei *OEH*-k adiera bat baino gehiago ematen diela: *jasankor* “paciente, sufrido” izan daiteke, baina baita “soportable” ere. *Sineskor*-ek, izenondo gisa hiru adiera ditu: “sensible, emotivo” eta “doloroso, penoso”, baina “sensible, perceptible” ere bai. *Jasankor*-en kasuan lehenengo adieran eta *sentikor*-en lehenengo bi adieretan, eratorritako izenondoek aditzaren subjektu ergatiboa, esperimantatzailea dena, izango dute subjektu; gainerako adieretan ordea, oinarriko aditzaren subjektu absolutiboa, gaia, izango da izenondoaren subjektua.

Nolanahi ere, ohargarria da NOR-NORI aditz psikologiko guztiek ezin dutela objektu kanonikoa lexikoian asetu, Oyharçabalek (2003: 377) berak aipatzen duenez, *gustatu* aditzarekin ikus daitekeenez:

(22) **Zahartzean gaztetan baino aiseago gustatzen zaigu*

(23) *Zahartzean gaztetan baino aiseago ahazten zaigu*

Izan ere, *gustatu* aditzak gaia rola betetzen duen argumentua syntaxian gauzatua izan dadin eskatzen du.

Honen ildotik, bigarren aditzarekin *kor*-en eratorbidea posiblea da, ez ordea, lehenengoarekin:

(24) *ahazkor* vs **gustakor*

2.2.3. Salbuespentzat jo daitezkeen eratorpenak

Honaino aztertutako izenondo eratorrien subjektua oinarrian hartutako aditzaren subjektua izan da, theta-rol ezberdinak izan ditzakeena, Oyharçabalek argitu bezala. Hala ere, talde honetan sartzen ez den kasuren bat badago: *lerrakor* izenondoarena alegia (edota *irristakor* eta parekoak). Honako adibidea ematen digu:

(25) *Bide hau lerrakorra da*

Bide hau subjektu du izenondo honek, baina ezin daiteke izan oinarriko aditzaren subjektua:

(26) **Bidea lerratzen da*

Aurreko kasuak ikusita, pentsa liteke adibide hauetan NOR-NORK eta NOR-NORI aditz psikologikoetan gertatzen den fenomeno bera ematen dela hemen; hots, barneko argumentua eta argumentu lokatiboa duten aditz horietan, gaia rola duen argumentua lexikoian asetuko litzatekeela, izenondoaren subjektutzat argumentu lokatiboa utziz. Halere, azterbide honek zenbait argudio kontrari ditu: alde batetik, ez dago argi aditz hauetan DS lokatiboa argumentua den; bestetik, aipatutako aditz horiez

gain, badirudi ez dagoela horrelako eratorpena ahalbidetzen duen beste aditzik. Oyharçabalen lanetik hartuak dira beheko adibideak:

- (27) a. **Eskailera hauek erorkorrak dira* (= eskailera horietan aise erortzen da)
b. **Langela hau zikinkorra da* (= langela horretan aise zikintzen da)
c. * *Toki leizetsu horiek hilkorrek dira* (= toki leizetsu horietan aise hiltzen da)

Hau ikusita, aipatutako *lerrakor*, *labainkor* eta *irristakor*¹³ salbuespen lexikalak izan daitezkeela proposatzen du autoreak.

Ondorio gisa, lehenago aipatutako lehenengo hurbilketa zuzendu eta bigarren hurbilketa bat proposatzen du:

- (28) *-kor*-en bidez eratorri izenondoak asegabeko argumentu bakarra duten aditzen subjektuez predikatzen dira, [+agente] direnak baztertuz.

Salbuespen izan daitezkeen edota ohiko eratorbidera egokitzen ez diren *-kor*-en bidez sortutako izenondoekin bukatzeko, Oyharçabalek “*-kor*-en bidez eratorritako izenondo kausatiboak” (2003: 379) deitzen dituen multzoa aurkeztuko dut:

- (29) a. *Ideia honek galduko zaituzte* → *Ideia galkorrak dira*
b. *Pozoi horrek hil dezake* → *Pozoi hilkorra da*
c. *Eritasun horrek kutsatuko zaitu* → *Eritasun kutsakorra da*
d. *Bero horrek itotzen gaitu* → *Bero itokorra da*
(Oyharçabal, 2003: 379)

Dioenez, barneko argumentua lexikoian asetzearekin zerikusia du honek ere, baina bitxikeria batekin: aurrekoek ez bezala, (29)-ko izenondoaren oinarriko aditzak kausatibo/inkoatibo alternantzia dutela eta bi balioak hartzen dituela eratorbidea sortzean. Honen ondorioz, esanahia anbigua izan dezakete, adibide honekin garbiago azalduz: “*galkor*, adibidez, berez galtzen denaz erran daiteke, edo galbidera daramanaz, orduan *galgarri* izenondoaren sinonimo delarik”. Anbiguitate hori saihesteko, homonimoak izango balira bezala tratatzea proposatzen du; hala, *galkor1* ‘berez galtzen

¹³ Villasantek (1974) “resbaladizo”-rentzat *linburkor* izenondoa ematen du; halere, *OEH*-n ez da agertzen Villasantek aurkeztutako izenondo hau, beraz, ez dirudi oso esanguratsua denik.

dena' izango litzateke (balio inkoatiboa duena beraz) eta *galkor*² 'galbidera daramana' (balio kausatiboa).

Ematen dituen lau aditz horiez gain, talde honetan *EPG*-tik ateratako beste kasu bat gehitu behar genukeela uste dut, *nahaskor* izenondoarena hain zuzen. *Nahastu* aditza alternantzia inkoatibo/kausatiboa duten horien artean sartzen da eta *OEH*-ren arabera, *nahaskor*-ek hiru adiera ditu, bakoitzak balio horietako bat hartzen duelarik:

- Nahaskor***: 1. “Pegajoso, contagioso”¹⁴ → irakurketa kausatiboa
2. “Confuso” → irakurketa kausatiboa eta inkoatiboa
3. “Enredador”¹⁵ → irakurketa kausatiboa

Lehenengo eta hirugarren adierei dagokienez, balio kausatiboa hartzen dute, lehenengo adieran izenondoaren subjektuak instrumentu-rola eta hirugarrenean egile edo agente eginkizuna izanik. Alabaina, *OEH*-k ez du lehenengo adiera horrentzat inolako adibiderik ematen. Bigarren adierak, ordea, irakurketa biak izan ditzake, bai kausatiboa, bai inkoatiboa. Hau argiago ikusteko, *Orotariko Euskal Hiztegia*n ematen diren adibideak aipa daitezke:

“Confuso”:

- (30) a. *Hemen gaindi, asko tokitan gaitz ustela deitzen baitute, hizkuntza hori maletegia zaiku, hanitzen buruarentzat nahaskorra.* (JE Med 125)
b. *Dugun mintza eskuara, parerik gabekoa den lenguaia bakarria guziz oso eta batere ez nahaskorra* (BN). (Concurso de Heleta, 10-5-1959)

“Enredador”:

- (31) *Khantüko gizun nahaskor horrek.* (Eskual 14-2-1908, 4)

(30)-eko adibideetan *hizkuntza hori* eta *lenguaia* instrumentu-eginkizuna duten izenondoaren subjektuak dira, irakurketa kausatiboa topatzen dugu horietan beraz; (31)-an, ordea, *Khantüko gizona* agentea. Esan behar dugu, hirugarren adiera horrek adibide bakarria duela eta ez dirudiela oso emankorra edo erabilia.

¹⁴ *OEH*-k esaten du esanahi honekin Azkuek soilik erabili zuela.

¹⁵ Azkenengo adiera honetan, hiztegiak *nahasle*, *nahastari*-ren sarreretara bidaltzen du irakurlea.

Horrez gain, *ETC*-n begiratuta, “confuso” adiera horrentzat ere erraz topa daitezke adibideak:

- (32) a. *Bitxia eta nahaskorra izan zen proiektua.* (Berria, 2012-08-10, <<Hiru bider hiru>>, ARKAITZ MENDOZA)
- b. *Bawtyko uhalgilearen kasuan Oliver Cromwel izan zen itzal babesletik iluntasun nahaskor bilakatu zen indar eragilea.* (Bizitza eredugarriak, J.M. Olaizola “Txiliku”, Elkar, 2006)
- c. *Euskal Herriak bizi duen egoera nahaskorraren adibide bat gehiago da Udalbiltzaren egoera.* (Argia, 2001-04-01, 1802. zbk.)
- d. *Baina testua kontraesanez betea dago bere sentimenak nahaskorrak diren neurrian.* (Berria, 2013-01-27, <<Patera eta metafora>>, IRATXE ESNAOLA)
- e. *Baina, askotan elkarrekin nahaskorrak baldin badira, likido garden bat ikusiko genuke eta zeinek daki sistema bakuna ala konposatua ote den.* (Berria, 2006-11-15, <<Sistema>>)

(32a), (32b) eta (32c) adibideek, irakurketa kausatiboari egiten diote erreferentzia; (32d) eta (32e)-k ordea, inkoatiboari, hau da, oinarriko aditzean gaia rola duen argumentua eratorritako izenondoaren subjektua da.

Hortaz, izenondo honetan ere anbiguotasuna ekiditeko, *nahaskor1* “erraz nahasten dena” eta *nahaskor2* “nahasten duena” izango genuke. Kasu honetan, *-garri* atzizkiaren jokamoldea duela ikusten dugu; hots, balio kausatiboa eta pasiboa har ditzakeela alternantzia duten aditzetan (Artiagoitia, 1995).

Hala eta guztiz ere, badirudi NOR-NORK paradigmako eratorbide hauek ez daudela oso garbi, mota horretako aditz guztiekin ez delako posible eta ez dituztelako hiztun guztiek onartzen.

Bukaeran, kasu hauei dagozkien bi baldintza esanguratsu azpimarratzen ditu:

(33) Izenondoaren subjektua ezingo da egilea edo agentea izan.

(34) Lexikoian asetutako objektua biziduna izango da.

Beraz, kontuan izanda bigarren baldintza ez zaiela balio kausatibodun *garri* izenondoei aplikatzen, ez dira sinonimoak izango, lehenago aipatuaren kontra.

Laburbilduz beraz, esan dezakegu *-kor* atzizki emankorra dela eta izenondoak sortzen dituela; orokorrean, argumentu bakarreko aditzoinak hartzen ditu oinarri, baina zenbait kasutan izenak ere onartzen dituela ikusi dugu, eta ohiko eratorbidetik baztertuta geratu diren eratorbideetan, oinarrian izena edo aditza ez zen beste kategoria bat zuten izenondo eratorri gutxi batzuk agertu dira. Oinarrian aditz hauek har ditzake: a) NOR aditz ezakusatiboak, b) inkoatibo/kausatibo alternantziadunak eta alternantziagabeak, c) argumentu bakarreko NORK aditz ezergatiboak; baita barneko argumentua lexikoian ase dezaketen NOR-NORK aditzak eta NOR-NORI aditz psikologikoak. Aipatutako aditz-mota guztiekin *-kor*-ek eratorbidea sor dezake, betiere subjektuak egile rola ez badu; horrez gain, izenondo eratorriak oinarriko aditzaren subjektua bere subjektutzat hartzen du, *lerratu*, *labaindu* eta *irristatu* aditzekin izan ezik, zeinetan euren argumentu lokatiboa izenondoaren subjektu bilakatzen den, hauek salbuespen lexikal kontsidera daitezke ordea; azkenik, aipatutako objektu-kanonikoaren asetze hori alternantzia inkoatibo/kausatibo duten zenbait aditzetan ere ematen da, eratorpena sortzean izenondoak bai balio inkoatiboa bai balio kausatiboa duelarik, berriro ere, subjektua egilea ez bada.

3. Corpusetan arakatuz

Atzizkiaren ezaugarri gramatikalak aurkeztu ondoren, atal honetan, corpusak arakatuz, *EPG*, *ETC*, *UZEI*, *Euskal Klasikoen Corpora (EKC)* eta Azkuek (1923-25), Villasantek (1974), L.M. Mujikak (1978) eta Plácido Mujikak (1982) euren lanetan ematen dituztenak, esandakoarekin guztiz bat ez datozen eta topatu ditudan zenbait kontu azaltzeari edo gehitzeari ekingo diot.

3.1. Oyharçabalen (2003) aditz-sailak osatzen

Hasteko, *-kor* atzizkiak hartzen dituen argumentu bakarreko aditzei dagokienez, esan behar dut datuek bat egiten dutela Oyharçabalen orokorpenarekin.

Ordea, *-kor* atzizkia eta barneko argumentua lexikoian ase dezaketen bi argumentuko aditzak sailari dagokionez, aipamena eta azalpena merezi duten datu batzuk aurkitu ditut.

Lehenik, Oyharçabalen (2003) aditz zerrendari adibide batzuk gehituko dizkiot; izan ere, objektu kanonikoa lexikoian asetzen duten aditzak aurkeztean, bi taldetan banaturik, NOR-NORK aditzak eta NOR-NORI aditz psikologikoak, zerrenda zehatz bat ematen du eta autoreak esandakoak baino gehiago daudela erakustea garrantzizkoa

iruditu zait. Adibide hauek Azkue (1923-25: 147-150), Mujika (1978: 176-180) *UZEI* eta *Ereduzko Prosa Gaur*-eko corpusetan topatutakoak dira. Hortaz, jarraian emango dudan zerrendak lehenago aipatutako (17) –aren osagarri izatea du helburu:

(35) *X-k anitz begiratzten du → X begirakorra da*

X-k anitz eragiten du → X eraginkorra da

X-k anitz esaten du → X esankorra da

X-k anitz ikasten du → X ikaskorra da

X- anitz ikusten du → X ikuskorra da

X-k anitz irensten du → X irenskorra da

X-k anitz jarraitzen du → X jarraikorra da

X-k anitz laztantzen du → X laztankorra da

X-k anitz maitatzen du → X maitakorra da

X-k anitz ukatzen du → X ukakorra da

X-k anitz ukitzen du → X ukikorra da

X-k anitz ulertzen du → X ulerkorra da

(35) adibideko guztiak NOR-NORK aditzen artean sartu behar ditugu eta beraz, oinarriko aditzaren subjektu ergatiboa izango dute adjektiboaren subjektu, alegia, balio kausatiboa gailentzen da hauetan.

Ikaskor izenondoa badirudi Azkueren lanean (1923-25) soilik agertzen dela eta *OEH*-k “estudioso, aplicado” adiera ematen dio, honako adibidearekin lagunduz:

(36) *Biarrian, bizkorra*¹⁶, / *eskolan, ikasikorra*. (Neskatilla ondo aziaren begirakaia, 1)

ETC-n ere agerraldi bakarra du:

(37) *Uda joan zaut (eta ni harekin!) opor langintsu eta ikaskor garai batean, tekniko-kontable bilduma-txosten bat ekoiztu beharrean ene Etxarriko hezizailen*

¹⁶ *Bizkor* izenondoari dagokionez, Azkuek (1923-25: 149) “ágil” adiera ematen dio eta ez dela *bizikor*-en pareko esaten du; gainera, izenondo honen azentua *aldakor*-en azentuarekin, esate baterako, erkatzean, ezberdinak direla dio eta ez duela beraz, *bizkor*-en –kor hori eratorpenezkoa dela esateko ebidentzia argirik. Echaidek (1931: 113) bere aldetik, kontrakoa esaten du, *bizi*-rekin lotu eta “apto para vivir, fuerte” adiera ematen baitu. *OEH*-n begiratuta, honako adiera hauek topatzen ditugu: 1. “Vigoroso, fuerte”, 2. “Activo, vivo, eficaz”, 3. “Rápido, veloz, ágil”, 4. “Excitable” (*pizkor* aldaera), 5. “De genio vivo” eta 6. “(Dedo) índice” (*pizkor*). Zaila da beraz, honako adiera hauek ikusita, eratorbidea zein den jakitea, kasu bitxia behintzat bada, halere.

asebetetzeko, [...] (Hotz bero, Mixel Thicoipé, Maiatz, 2007)

Beraz, izenondo eratorri honen arrakasta eskasa ikusita, bere agerpena salbuespentzat kontsidera genezake.

Mujikak (1978) bere laneko corpusean aurkezten duen *laztankor* ere hauen artean azertu behar dugu. *OEH*-k “acariciador” itzulpena ematen dio eta bai hiztegian, bai *ETC*-n honen adibideak topa ditzakegu:

OEH:

(38) *Kate zaarra, etzazute, arren, emakumeok, esku laztankor oiekin betirako eten eta apurtu. (Ldi IL 141)*

ETC:

(39) a. *Abesteko modu bat aurkitu du eta konpositore gisa sendotasun handiagoa erakusten du, baina gitarrari ateratzen dion soinu laztankorrean datza Keu Agirretxearen berezitasuna. (Berria, 2011-01-13, <<Argitaratu berriak>>)*

b. *“Bai astoa zarela!” bota zion Sydneyk ume mainontziari errieta egiten zaion tonu laztankorrean. (Ezinezko-maletak, Juanjo Olasagarre, Susa, 2004)*

*Ikuskor*¹⁷ eta *ulerkor*-en kasuetan, behin barneko argumentua lexikoian asetuta agerian geratzen den argumentuaren theta rola esperimantatzailea dutenak, *OEH*-k bakoitzarentzat adiera bat baino gehiago ematen duela topatzen dugu:

Ikuskor: 1. “Visible”

2. “Observador, curioso”

Ulerkor: 1. “De buen entendimiento”

2. “Inteligible, comprensible”

Ikuskor-en bigarren adieraren subjektuak esperimantatzaile rola izango luke, lehenengoak ordea, gaiarena. Gauza bera ikusten dugu *ulerkor*-en, zeinetan lehenengo

¹⁷ *Ikuskor* izenondoa Oyharçabalek bere lanean (2003: 379) oinohar batean aipatzen du, baina soilik “visible” adierarekin, aditzaren oinarriko objektuaz predikatzen direla esanez; hala ere, azertu ostean eta *OEH*-k horrez gain beste adiera bat ematen diola ikusirik, talde honetan sartzea eta topatutakoa azaltzea egokiena iruditu zait.

adieran esperimendatzaile rola duen eta bigarrean gaiarena. Hauek dira *OEH*-n adiera bakoitzarentzat agertzen diren zenbait adibide:

- (40) a. “Visible”: *Orduan zedukan aragi ekuskorra.* (Mg CC 198)
b. ”Observador, curioso”: *Jeloskor baino hobeki, Frantzina ez othe zen gerthatzen zenaren ikuskor?* (Larz HilEspos 44)
- (41) a. “De buen entendimiento”: *Bi irakasleak ao betean esan zidaten ikasle antsiduna, arretatsua ta ulerkorra (adimen zorrotzekoa) zala.* (A Ardi 30)
b. “Inteligible, comprensible”: *Euskera garbi ulerkorran.* (Agur 20-1-1973)

(40a) adibidean *aragi* dugu gaia eta (41b)-n *euskera*; era berean, (40b)-n *Frantzina* izango da esperimendatzailea eta (41a)-n *ikaslea*. Beraz, bi kasu hauetan behintzat, ikusten dugu *-kor*-ek eratorpena sortzean zenbaitetan aditzaren barneko argumentua subjektutzat hartu eta hari egiten diola erreferentzia, kanpoko argumentua kontuan hartu gabe, *ikuskor1* eta *ulerkor1*¹⁸, eta bestetan, objektu kanonikoa lexikoian asetzen dela eta esperimendatzailea geratzen dela subjektu gisa, *ikuskor2* eta *ulerkor2*. Aipatzekoa da eratorritako izenondo hauek *ETC*-n nahikotxo agerraldi dituztela, baina *ikuskor*-en kasuan adibide gehienek, guztiak ez badira, *ikuskor1* irakurketa erabiltzen dute eta *ulerkor*-en kasuan, *ulerkor2* irakurketa:

- (42) *Argi ikuskorra uhin elektromagnetiko bat besterik ez da.* (Goienkaria, 2012-03-02, 499.zbk., 499. orr.)
- (43) *Pascualek epelak entzun zituen, baina ulerkor agertu zen: <<Ez da Augustok halako zerbait egiten duen lehen aldia, baina hori bere irabazle senarengatik da>>.* (Berria, 2011-01-13, <<Pascualek garrantzia kendu dio Titinen errietari>>)

Gainera, aipagarria da *ikuskor1* eta *ulerkor1*-ek *ikusgarri* eta *ulergarri*-rekin esanahia partekatzen dutela, *OEH*-n ikus dezakegun bezala:

- Ikusgarri***: 1. “Digno de verse, admirable”
2. “Visible”
3. “Visivo”

¹⁸ Horrela izendatuko ditut errazago ezberdintzeko.

Ulergarri: “Comprehensible, inteligible”

Ukikor izenondoaren kasua azkeneko bi hauen antzekoa da; izan ere, *OEH*-k honi ere bi adiera ematen dizkio:

Ukikor: 1. “Tangible”

2. “Conmovedor”

Lehenengo adieran, adjektiboaren subjektuak gaia rola izango luke; bigarrenen ordea, instrumentua. Argiago ikus dadin hiztegiak ematen dituen adibideak aipatuko ditut:

(44) a. “Tangible”: *Mundu ikuskor eta ukikor hau ez da egiazki bizi den Munduaren Errainua, errainu ahuldu bat baizik.* (Mde Pr 271)

b. “Conmovedor”: *Ta, ikuspen bat legez,/ ona ta ukikorra,/ arriz egindako/ Andra Mari zaarra.* (Gand Elorri 122)

(44a) adibidean *mundu* dugu *ukikor*-en subjektua, gaia rola duena, eta (44b)-n *ikuspen*, instrumentua delarik. Nolanahi ere, *ETC*-n ez da izenondo honen agerraldi bakar bat ere agertzen, beraz, jada erabiltzen ez den izen eratorria dirudi.

Horrez gain, *ikuskor* eta *ulerkor*-en ikusi bezala, *ukikor*-ek *ukigarri*-rekin esanahia partekatzen du *OEH*-ren arabera, baina kasu honetan adiera biak gainera:

Ukigarri: 1. “Conmovedor, emocionante”

2. “Tangible”

Badirudi beraz, azkeneko hiru kasu hauetan ikusi dugunez, zenbait aditzek bai –*garri*, bai –*kor* onartuko dutela, balio berarekin gainera. Hau esanguratsua da, izan ere, ematen du –*kor* –*garri*-ren eremua hartzen ari dela zenbait kasutan. Baina ez hori bakarrik, *ukitzaille* izenondoak *ukikor* eta *ukigarri* duten “conmovedor” adiera ere badu. Esan genezake beraz, aipatutako atzizkiek bakoitzak aditzaren balio bat hartu beharrian, –*le/-tzaille*, –*kor* eta –*garri*-ren arteko nahasketa edo nahasketa hasiera baten aurrean egon gintezkeela.

Esankor-i dagokionez, zenbait adibide topatu ditut bai *OEH*-n bai *ETC*-n, hiztegiak “significativo, expresivo” gisa itzultzen duen heinean, guztietan subjektuak instrumentu rola duelarik:

OEH:

- (45) a. *Neskatx batek baño geiagok egiten zion agur bizia, abegi esankorra* [Joseri]. (Ag G 138)
- b. *Biotza ibiliko zitzaien izketan, osoro esankor; mingaña, lotsariak lotuko zion.* (Ib. 160)

ETC:

- (46) a. *Lanaren izenburua bere hartan da esankorra (Frantses izatea merezimendua da).* (*Burujabetza XXI. mendean*, UEUren Filosofia Saila, UEU, 2000)
- b. *Halaber, informazio esankorra aurkitu ez ezik, planteamendu hauek ere ez dira egiaztatu behar den bezala.* (*Uztaro aldizkaria*, 51 zbk., , UEU, 2004 – urria-abendua)
- c. *Keinu hunkigarria eta esankorra bide batez.* (*Martutene*, Ramon Saizarbitoria, Erein, 2012)

Ikus daitekeenez, (45) eta (46)-ko adibide guztietan izenondoaren subjektua bere oinarriko aditzaren subjektu ergatiboa litzatekeena da, agentetasunik ez duena.

Hona ekarriko dudan hurrengo hitz eratorria *maitekor* da, *OEH*-n “amoroso, cariñoso, afectuoso” gisa itzulita agertzen dena. Honetan, esanahi horri erreferentzia eginez, subjektu esperimantatzailea duten zenbait adibide ikus ditzakegu:

- (47) a. *Mutil adimen argiduna, oso lagun artekoa, lagun maitekorra, biargiña.* (Kk Ab 107)
- b. *Buruzagitza Nagusia herritar guztien aita maitekorra da.* (*Arti Tobera* 265)

Bestalde, *ETC*-n ere topa ditzakegu hau erakusten duten hainbat adibide:

- (48) a. <<*Gure lan ereduaren aita izan da, pazientiaren maisua, zorrotza baina oso maitekorra.* (*Egunkaria*, 2002-10-04, AMAGOIA MUJKA)
- b. *Lagun eta umeekin maitekorra, begiekin guztiei egiten zenien irri.* (*Goienkaria*,

3.2. Oyharçabalen (2003) orokorpenaren kontraetsenplu diruditenak

Orain arte ekarri ditudan izenondo eratorriek bat egiten badute ere Oyharçabalen orokorpenarekin, ondoren kontraetsenpluak diruditen kasuak erakusteari helduko diot. Izan ere, bere lanean (2003: 375) esaten duenez, objektu-kanonikoa lexikoian asetzen duten NOR-NORK aditzen subjektuaren theta-rola esperimentatzailea (*jasan, sentitu, sinestu...*) edo instrumentua (*adierazi, ekarri, eman...*) izan daiteke, baina inolaz ere agentea. Gainera, horren ildotik oinohar batean aipatzen ditu horren kontradibide diruditen *erailkor* eta *galdekor*, baina horien adibideetan subjektu bizigabea agertzen da, eta beraz, ez da agentea. Nire azterketan ikusi dudanaren arabera, ez nago honekin guztiz ados, zenbait kasutan egiletasuna duen argumentuari egin baitiezaioke erreferentzia, hurrengo adibideetan erakutsiko dudan bezala.

Has gaitzen *adierazkor* izenondoarekin; *OEH*-k zenbait adibide eskaintzen ditu, baina agertzen diren guztiak bizigabeak diren heinean, instrumentu rola izango dute, esate baterako:

- (49) a. *Bizia eta adierazkorra baldin bada [hizkera], zertarako behar du garbia izan?*
(Ib. 303)
- b. *Hau dela eta, honen pasarte bat aldatu nahi nuke, aski adierazkorra iruditzen zaidalako.* (MEIG IX 45)

ETC-n ere, adibide ugari agertzen dira, baina aurrekoaren aldean, honetan badira subjektu biziduna, eta beraz, agentea dutenak:

- (50) a. *Ez zinen bertsotan bezain adierazkorra izan etxean.* (Berria, 2006-05-19, <<Behin ulertzen hasitakoan>>, ONINTZA ENBEITA)
- b. *Uste dut adierazkorra naizela, transmititu egiten dudala.* (Berria, 2007-02-11, <<Izarren hautsa>>, IDOIA ETXEBERRIA)
- c. *Dantonek ez du perfekzioa atsegin, nota okerrak interpretatu zituen, garrantzirik gabeko ñabardurak direla argudiatuz; halere, adierazkorra izan zen emanaldi osoan.* (Berria, 2009-10-22, <<Belatz eta atsegin>>, ARKAITZ MENDOZA)
- d. *Ez dugu esango Iñigo Urkullu pertsona bereziki adierazkorra denik, are gehiago, Alderdi Eguna delakoetan ere oso bihotz gutxi hunkitzen dituela esango nuke.*

(Berria, 2010-09-11, <<Lemazain horiekin, nora zoazte?>>, IKER
BIZKARGUENAGA)

(49) eta (50)-eko adibideen arteko aldeak erraz ikus daitezke, azkeneko hauek subjektu biziduna eta agentea dutelarik eta ez da kasu bakarra.

Begirakor-i dagokionez, bizidun bati erreferentzia egiten dio bai *OEH*-n bai *ETC*-n, esanahia “prudente, curioso” delarik, adiera honetan, ordea, ez dago egiletasunik, aditz honek berez, agentea eskatzen duen arren; halere, aitortu behar da hiztegiak zein corpusak honetarako adibide bakarra eskaintzen dutela eta erabilera hortaz, oso eskasa izan dela¹⁹:

OEH:

(51) *Irakasle azlea do ezlea, ba, zurra, arduratsua, bioztuna, oituretan akats-gabea, adimen jakintsuduna, zintzua ta argia, begirakor ta otzana.* (JBDei 1919, 262)

ETC:

(52) *Bere meditazioetako tropo kriptokatoliko ilun horiekin Heidegerrek, hezkuntza humanistaren helburuen haraindi, gizarte gogoetazale batera nahi gintuzke deitu, han izatearekin begirakorrangoak izango omen baikinategi mendebaldarra orain arte izan dena baino.* (*Jakin aldizkaria*, 122 zbk., , 2001 – urtarrila-otsaila)

Hauetan beste kasu bat *eraginkor* da. *OEH*-ren arabera, “eficaz, efectivo” esan nahi du eta *eragile*-ren sarrera arakatzeko gomendatzen digu. Beste behin ere, *-kor* atzizkiaren balioak lehian agertzen dira beste atzizki batekin, kasu honetan *-le/-tzaile*-rekin. Subjektu biziduna, eta agentea, baina baita bizigabea ere duten zenbait adibide eskaintzen dizkigute bai *Orotariko Euskal Hiztegiak* bai *Egungo Testuen Corpusak*; ikus ditzagun beraz biziduna erakusten duten horietako batzuk:

OEH:

(53) a. *Etzan noski, Allande bere anaia bezain argi, eraginkor eta edozer lanketatik bizia ateratzen zekiana.* (Etxde JJ 68)

b. *Emakume eder eta eraginkor zanez, tentagarri egin zitzaion.* (Ib. 88)

¹⁹ *Begirakortasun* ordea, *Euskal Klasikoen Corpus*-ean 34 agerraldi ditu, gehienak Duvoisin-enak (1810-1891) diren arren, lapurterazkoak.

ETC:

- (54) a. *Hegaletatik ederki sartzen dira, Ryan Giggs zorrotzari esker; eskuinean Cristiano Ronaldok eraginkorra izaten ikasi behar du oraindik.* (Berria, 2003-12-12, <<Izarren festara gonbidatua>>, NAXARI ALTUNA)
- b. *Kornel David denboraldi hasierako langile fin eta eraginkorra izan zen berriro.* (Berria, 2004-03-02, <<Mugak finkatzea, taldearen esku>>)
- c. *Sharp lan horretan ondo moldatzen da, baina Jasikeviciusen fitxaketarekin minutuak galdu ditu, lituaniarra oso eraginkorra izaten ari baita.* (Berria, 2004-04-29, <<Lau finalean eta bakarra harmailetan>>, JON REJADO)

Emankor-en kasua ere sartu behar dugu hemen; izan ere, subjektu bizidunak agertzen ditu behin baino gehiagotan. *OEH*-k esanahi bat baino gehiago ematen dio honi: “productivo, fértil, fructífero” eta “generoso, dadivoso”; azkeneko hau da gizakia den subjektua erakusten duena eta bide batez, Oyharçabalek zehazki izenondo honen inguruan esaten duenaren kontra doana: “*emankor* ezin erran daiteke eskuzabala den norbaitez” (2003: 376). Adibideak badira, nolana ere:

- (55) a. *Ondraua, emankorra, biotz andikoa.* (Ag Kr 151)
- b. *Beartsuentzat oso emankorra, etxekoentzat eutsia.* (Ag G 29)
- c. *Bere buruba iñongo bakanderarik emokorren eta esku-zabalenatzat daukon bakandera orrek.* (Otx 78)

Egungo Testuen Corpusean ere topa daitezke adibideak, kasu honetan, *OEH*-k emandako lehenengo esanahiari (“productivo, fértil, fructífero”) erreferentzia egiten dioten arren:

- (56) a. *Oso idazle emankorra izan zen.* (Berria, 2003-10-31, <<Joan Peruchoren agur isila>>, IVAN SANTAMARIA)
- b. *Txapeldun emankorra izango den da zalantza, ez ordea sufritzen dakien liderra den ala ez.* (Berria, 2003-09-27, <<Urre gorria>>, ANDONI URBISTONDO)
- c. *Jimeno Jurio oso idazle emankorra izan zen.* (Berria, 2004-02-05, <<Gure historia, Jimeno Jurioren bidez>>, ERREDAKZIOA)
- d. *Surrealismoaren protagonista eta sortzaile emankorra izan zen eta berak*

asmatutako metodo paranoiko-kritikoak garaian eta hurrengo urteetan eragin nabarmena izan zuen. (Berria, 2044-05-11, <<XX. mende osoko artista>>)

e. *Musikagile emankorra da eta orkestra zuzendari kementsua, bere talde guztiak benetako erritmo makinak izatea lortzen du eta manboaren asmatzaitzat daukate. (Berria, 2004-07-28, <<Cachao eta Shirley Hom, jazz abestuko dama, amaitzeko>>, IZASKUN BERAZA)*

Honekin amaitzeko, (35)-ko zerrendako beste hiru kasu ekarriko ditut hona; halere, hauek, adibide kopuru eskasa dela eta, subjektu agentea eta beraz, biziduna, hartzeko orduan salbuespentzat har daitezke.

Horietan lehenengoa *irenskor* litzateke. *OEH*-k “devorador” gisa itzultzen du eta bide batez, *irensгарri* izenondoaren sarrera begiratzera gonbidatzen gaitu. Adibide bakarra ematen digu, subjektu bizigabea eta instrumentu rola duena gainera:

(57) *Yaube, zure Yauna, su irenskor, ta Yainko takutsu da. (Ol Deut 4, 24)*

Egungo Testuen Corpusean, bestalde, *irenskor*-ek dituen hamar agerraldietatik, bakarrak du subjektu agentea (izaki mitologikoak bizidun gizakitzat har daitezkeen heinean, behintzat):

(58) *Hementxe dago Karibdis irenskorra, eta Etnaren urrumak hementxe ari dira mehatxuka, haren garren sumina berriro pilatzeko eta su bortxaz egotzia ahutzetatik okaztatzeko eta garrezko tximistak berriro zerura jaurtitzeko. (Gauzen izaeraz, Lukrezio (Xabier Amuriza), Pentsamenduaren Klasikoak, 2001)*

Badira ordea, Oyharçabalek (2003) aditz mota hauentzat proposatutako baldintzak betetzen dituzten beste zenbait adibide, besteak beste:

(59) *Badator gure Jainkoa, eta ez isilean: su irenskorra aurretik, erauntsi zakarra inguruan. (Elizen arteko Biblia, Sal, Askoren artean, Idatz, 2004)*

(59)-an, (57)-an bezalaxe, *su* da izenondoaren subjektu ergatiboa, bizigabea eta instrumentu rola duena, Oyharçabalek esan bezala.

Bigarren kasua *jarraikor*-ena da, *Orotariko Euskal Hiztegiak* “seguidor” itzulpenarekin ematen duena. Adibide bakarraz lagunduta agertzen da, hain zuzen subjektu agentea duena:

(60) *Ez neban besterik nai izan aiskidetasun garbixan a zerbidu baño. Eta ala irautzen dogu [...] gaur arte, zintzo bezin eder a; eta zintzo bezin jarraikor ona ni.* (Etxba *Ibilt* 483)

Hala ere, honako hau da bakarra, *ETC*-n dituen agerraldietan ez baitut subjektu biziduna duen adibiderik topatu; bai ordea bizigabea duten hainbat:

- (61) a. *Bada ordea, Jamaika eta Etiopia gerturatzen dituen pintzelkada jarraikor bat bien paisaian, koloreen armonian barrena nostalgia ekidinezi.* (*Goienkaria*, 2008-11-21, 354. zbk., 354. orr.)
- b. *Une gogoangarri eta gozoenen erretoak ez dira erruduntasunaren irain jarraikor bilakatzeko puskak.* (*Larremotzetik*, Hasier Larretxea, Erein, 2014)
- c. *Ez dira idazleak kasualitatez, produkzio jarraikorra duten idazleak dira guztiak.* (*Goienkaria*, 2005-10-28, 218. zbk., 218. orr.)

Hirugarren eta azkeneko kasua *ukakor*, “pesimista”, izenondoa litzateke. *OEH*-k zenbait adibide eskaintzen ditu eta *ETC*-n dituen bederatzia agerraldietatik bakarrik du subjektu agentea:

OEH:

- (62) a. *Ni ukakorra naiz buruz, biotzez baikorra izan arren.* (Or, carta a Ldi 17-4-1929)
- b. *Orrengatik oi gera zaarrago eta ukakorragoak.* (*Txill Let* 102)

ETC:

- (63) *Horretan Sartori, berak defendatzen duen estatu ereduaren antzera, etorkinen arazoaren aurrean etsita bezain ukakorra azaltzen zaigu [...]* (*Egunkaria*, 2001-04-18, FITO RODRIGUEZ)

Nolanahi ere, honekin guztiarekin ez dut esan nahi aipatutako izenondoek subjektu biziduna eta agentea soilik izan dezaketarik, adibideren batean ikusi dugun

bezala eta Oyharçabalek ondo esan bezala, instrumentu-rola izango duten subjektu bizigabeak ere izango dituzte noski.

NOR-NORI aditz psikologikoei dagokienez, Oyharçabalek (2003) emandakoez gainera (ikus (21) gorago), gehi dezakegun beste kasu bat topatu dut:

(64) *X-ri gauzak aise iruditzen zaizkio* → *X irudikorra da*²⁰

Honetan, autoreak berak esan bezala, datiboak esperimentatzaile-rola izango du eta absolutiboak gaia, horrela, aditzak bi argumentu dituelarik. *Orotariko Euskal Hiztegiak* izenondo honi lau adiera ematen dizkio:

Irudikor: 1. “Suspicaç”

2. “Imaginario”

3. “Imaginable”

4. “Figurado (ref. al sentido de una palabra)”

Azkeneko hiru adieretan, *-kor* atzizkiak ohiko eratorbidea jarraitzen du; hots, oinarriko aditzaren barneko-argumentua, gaiaren rola duena alegia, izango da eratorritako izenondoaren subjektu ere. Lehenengo adieran ordea, erabiliena dirudienak, berriro ere objektu-kanonikoa lexikoian asetzen den horietako beste kasu bat dela ikus dezakegu. Hiztegiak zenbait adibide ematen ditu, esandakoa argiago ikus dadin:

(65) a. *Badirudi, irudikorregia ez banaiz, kargu hartzen datorkidala.* (MEIG VIII 31)

b. *Irudikorren batek pentsa dezake, gainera, izan zuela horretan zer ikusirik.*

(MEIG VII 88)

c. *Agidanean [...] bigarko autokarrean bilduko gera Aljeriako barrua ikusi nai degun guztiak. Ez da zer egon irudikor.* (Anab Aprika 13)

Horrez gain, *ETC*-n ere hainbat adibide daude:

²⁰ Oyharçabalek (2003: 377) *iruditu* aditza baneko argumentua lexikoian ase ezin dezaketen NOR-NORI aditz psikologikoen artean sartzen du, *irudikor* izenondoa ez dela *iruditu* NOR-NORI aditzetik modu erregularrean eratorria esanez eta honako adibide ezinezkoa gehituz: **Gaztean aiseago iruditzen zaigu*. Hala ere, arakatu ostean, izenondo honek dituen agerraldiak ikusita, aditz mota hauen sailean sartu behar dugula uste dut, Oyharçabalek esandakoaren kontra; izan ere, *OEH* eta *ETC*-tik ateratako jarraian ematen ditudan (65) eta (66) adibideetan ikus daitekeenez, argumentuaren asetzea posible da.

- (66) a. *Ez nuke irudikorra izan nahi, baina emakume izateak ez du zerikusirik izango, ezta? [...]* (Egunkaria, 2000-12-21)
- b. *Txit irudikorra zen arren, ez zitzaion laido hargatik haserretzea bururatu ere egin Fabriceri [...]* (Parmako kartusia, Stendhal (Jon Muñoz), Elkar/Alberdania, 2007)
- c. *Kontu handiz ibili behar zuen, ez zen-eta harritzekoa Dick irudikorra egotea hain debila zebilen garai hartan.* (Belarra kantari, Doris Lessing (Koro Navarro), Elkar, 2008)

3.3. Ondorioak

Atal honekin bukatzeko, bil ditzagun hemen atera diren konturik garrantzitsuenak:

- I. *-kor* atzizkiak, batez ere argumentu bakarreko aditzak hartzen ditu, inkoatibo/kausatibo alternantziadunak zein alternantziagabeak, egiletasunik ez duten heinean.
- II. *Ikuskor*, *ulerkor* eta *ukikor* izenondoek adiera bat baino gehiago dute, adieraren arabera subjektu ergatiboari edo absolutiboari erreferentzia egiten diotelarik; gainera, *-garri*-k eratorritako izenondo baliokideekin (*ikuskor-ikusgarri...*) esanahia partekatzen dute eta *ukikor*-en kasuan baita *ukitzaile*-rekin ere. Ematen du beraz, *-kor* hasiera batean egokitzen ez zitzaion eremuetara hedatzen ari dela, *-garri* edo *-le/-tzaile*-ri dagozkien zenbait balio hartuz.
- III. Atzizkiak onartzen dituen argumentu biko aditzekin, kasu askotan, edo gehienetan, izenondo eratorriak instrumentu edo esperimendatzaile rola duen subjektua izango du, baina badira subjektu biziduna eta agentea duten zenbait adibide, Oyharçabalek esandakoaren kontra.

4. Ondorio orokorrak

Lanari amaiera emateko, *-kor* atzizkiaren ezaugarri nagusiak eta interesgarrienak laburbilduko ditut:

- I. *-kor* beregaintasun lexikalik ez duen morfema da eta izenondoak sortzen dituen atzizki emankorra da. Eratorritako izenondoek oinarrian hartutako

aditzarekiko “joera” adierazten dute. Atzizki honek jatorri erromanikoa izan dezakeela proposatzen dute hau aztertutako autoreek, zehazki, jatorri erdalduna Echaidek (1931) eta latindarra Mujikak (1978), geroago *-k* epentetikoa hartu duen atzizkiaren forma zaharra *-or* delarik.

- II. Atzizkiak aditzoinak hartzen ditu oinarri, Oyharçabalek (2003) hiru sailetan sailkatzen dituen zenbait hitz eratorri kanpoan utzita: *ilezkor*-en erakoak, *aberekor*-en erakoak eta *baikor*-en erakoak. Hiru talde hauetan sartutakoak ohiko eratorpenetik kanpo geratuko lirake.
- III. *-kor*-ek oinarrian hartzen dituen aditzak bi taldetan sailkatzen dira: alde batetik, argumentu bakarreko aditzak eta bestetik, argumentu bikoak. Lehenengoei dagokienez, aditzaren subjektu den barneko argumentua izenondoaren subjektu ere izango da. Hauen artean, badira oinarrian aditzik ez dutela diruditen zenbait hitz eratorri (*gizenkor*, *haserrekor*...) baina hau itxura kontua besterik ez da, erator-atzizkia agerian ez duten aditz eratorriak baitira oinarrian dutena. Horrez gain, zenbait aditz iragangaitzek, duten subjektuaren arabera, eratorpena baldintzatzen dute; izan ere, aditzaren subjektuak gaia edo instrumentu rola badu, eratorpena posiblea da, egile rola badu ordea, ez.
- IV. Aurreko aditz iragangaitz horiek bi taldetan sailkatzen dira: NOR aditz ezakusatibo inkoatibo/kausatibo alternantziadunak eta alternantziagabeak. Alternantzia hori duten aditzen kasuetan, atzizkia aditzaren forma iragangaitzarekin lotzen denean soilik izango da eratorpena posible.
- V. NORK aditz ezergatiboak ere, iragangaitzak diren heinean, *-kor* atzizkiaren oinarri izan daitezke, betiere, subjektuak egiletasunik adierazten ez badu. Hauen artean sartzen dira baita ere aditz lokuzioen izenetan oinarritzen diren izenondo eratorriak (*iheskor*, *irrikor*...). Kasu hauetan, *-kor* lokuzioaren balio lexikala duen osagaiarekin elkartzen da, aditza den osagaia ezabatuz (*iheskor* vs **ihes eginkor*). Hortaz, izenarekin elkartzen da eratorpen hauetan.
- VI. Bi argumentudun aditzetan bi mota ditugu: NOR-NORK aditz iragankorrak eta NOR-NORI aditz psikologikoak. Hauetan ere, oinarriko aditzaren subjektua izenondo eratorriarena izango da. Barneko argumentua ordea, lexikoian asetuko da, *-kor*-en bidezko eratorpena gauza dadin, argumentu bakarra balute bezala jokatuz.

- VII. Kasu gehienetan, NOR-NORK aditzen subjektuak esperimentatzailea edo instrumentuaren theta rola izango du. Hala ere, ikusi dugu objektu kanonikoa lexikoian asetzen duten aditz hauen artean, badirela subjektu egilea, biziduna eta gizakia izan arren *-kor* aditzarekin eratorpena ahalbidetzen dutenak. Hau ematen den kasu batzuetan *-kor*-en balioak lehian agertzen dira beste atzizki batzuekin, *-le/-tzaile* eta *-garri* atzizkiak alegia (*ikusko-ikusgarri, ukikor-ukitzaile...*). Hala, badirudi bi atzizki hauen eremuetara zabaltzen ari dela, berez *-kor*-i ez dagozkion balioak eta esanahiak hartuz.
- VIII. Salbuespentzat har daitezkeen bi eratorpen mota ikusi ditugu. Alde batetik, *lerrakor, labainkor* eta *irristakor* ditugu, izenondo eratorriak oinarriko aditzaren argumentu lokatiboa subjektutzat hartzen dituen kasuak, alegia. Kontuan hartuta hauen DS lokatiboa ez dagoela argi argumentua den eta aditz horiez gain ez dagoela horrelako eratorpena ahalbidetzen duen besterik, salbuespen lexikal gisa proposatu dira. Bestetik, alternantzia inkoatibo/kausatibo duten aditzen artean eratorpena sortzean bi balioak hartzen dituztenak ditugu. Balioaren arabera esanahia ezberdina izango da eta izenondo eratorri hauek homonimo gisa tratatzea proposatu dugu.

5. Bibliografia

- Artiagoitia, X. (1995): “*Garri atzizkiaren izaera bikoitzaz: Zergatik den maitagarria bezain mingarria*”, *Anuario del Seminario de Filología Vasca* Julio de Urquijo, XXIX-2/3, 355-405.
- Azkarate, M. & Gràcia, L. (1995): “Agentivity and modality in deverbal adjectives in Basque and Catalan”, *Revista di Grammatica Generativa*, 20, 3-32.
- Belleti, A. & Rizzi, L. (1988): “Psych-verbs and Theta Theory”, *Natural Language and Linguistic Theory*, 6, 291-352.
- Echaide, I.M. (1931): *Tratado de sufijación, prefijación y composición en el idioma euskaro*. L. Mendizábal, Tolosa. 112-113.
- Elhuyar (2000): Elhuyar hiztegia, euskara-gaztelania, castellano-euskara, Elhuyar, Usurbil. www1.euskadi.net/hizt_el/indice_e.htm
- Euskaltzaindia (1987-2005): *Orotariko Euskal Hiztegia – Diccionario General Vasco (OEH – DGV)*. 16 ale, Desclée De Brouwer & Mensajero, Bilbo. Bertsio elektronikoa: www.euskaltzaindia.eus
- Euskara Institutua, EHU. (2001-2009): *Ereduzko Prosa Gaur (EPG)*, www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa (ISBN: 978-84-693-989-0)
- Euskara Institutua, EHU. (2001-2015): *Egungo Testuen Corpusa (ETC)*, www.ehu.es/etc (ISBN: 978-84-693-9891-3)
- Euskara Institutua, EHU. (2013): *Euskal Klasikoen Corpusa (EKC)*, www.ehu.es/ehg/kc (ISBN: 978-84-693-9891-3)
- Euskara Institutua, EHU “-kor”, *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.es/seg (ISBN: 978-84-693-9891-3)
- Gràcia Solé L., Cabré Castellví M.T., Varela Ortega S., Azkarate Villar M. (2000): *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario*, EHU-UPVren argitalpen zerbitzua.
- Lafitte, P. (1944): *Grammaire basque. Dialecte navarro-labourdin littéraire*. Bigarren argitaldiaren faksimilea, 1978, Ikas eta Elkar, Baiona.
- Mujika, L.M. (1978): *Origen y desarrollo de la sufijación euskerica*. Ediciones Vascas, Donostia. 176-180.
- Mujika, P. (1982): *Afijos Vascos*. Mensajero, Bilbo.
- Oyharçabal, B. (2003): “*kor atzizkiaz*”. In Makatzaga, J.M. & B. Oyharçabal (arg.), *Euskal Gramatikari eta Literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*. Gramatika Gaiak. Iker 14-1, Euskaltzaindia, Bilbo. 357-383.

- Rizzi, G. (1986): "Null Objects in Italian and the Theory of pro", *Linguistics Inquiry*, 17-3, 501-557.
- UZEI (1989): *Atzekoz aurrera: euskarazko hitz-bukaeren hiztegi eguneratua*, www.uzei.eus/online/atzekoz
- Villasante, L. (1974): *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Editorial Franciscana Aranzazu, Oñate. 104-105.